

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2301

430/2023 EBAZPENA, apirilaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, Erdi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Erdi Mailako Teknikaria kategoriarako (Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 580/2023 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen, Erdi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Erdi Mailako Teknikaria kategoriarako (Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatua xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza, Erdi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Erdi Mailako Teknikaria kategoriarako (Segurtasuneko eta Higieneko Prebentzioko Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko ekainaren 6a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren

martxoaren 16ko 580/2023 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko ekainaren 6ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko ekainaren 6ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoen bat badute 2023ko ekainaren 6a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko maiatzaren 16a, asteartea

ERANSKINA
DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: PREBENTZIOKO, SEGURTASUNEN ETA HIGIENEN GOI MAILAKO TEKNIKARIA
LANPOSTU FUNTZIONALA: PREBENTZIOKO, SEGURTASUNEN ETA HIGIENEN GOI MAILAKO TEKNIKARIA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Prebentzioko Oinarrizko Unitatea-Arriskuen Prebentzioko-Arriskuen Prebentzioko / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Data igarota
1	Bidasoko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Bidasoko Ospitalea-Hondarria / Prebentzioko Oinarrizko Unitatea-Arriskuen Prebentzioko-Arriskuen Prebentzioko / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Data igarota
1	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Prebentzioko Oinarrizko Unitatea-Arriskuen Prebentzioko-Arriskuen Prebentzioko / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe
1	Bizk. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / BOMSeko Administrazioa-Bilbao / Zamudioko Ospitalea-Zamudio / Zaldibarko Ospitalea-Zaldibar / Bermeoko Ospitalea-Bermeo / Prebentzioko Oinarrizko Unitatea-Arriskuen Prebentzioko-Arriskuen Prebentzioko / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Data igarota
1	Debagoieneko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Debagoieneko Ospitalea-Arrasate/Mondragón / Prebentzioko Oinarrizko Unitatea-Arriskuen Prebentzioko Oinarrizko Unitatea-Prebentzioko Oinarrizko Unitatea / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Data igarota
1	Goierri-Urola Garaiako ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Zumarragako Ospitalea-Zumarraga / Prebentzioko Oinarrizko Unitatea-Arriskuen Prebentzioko-Arriskuen Prebentzioko / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Data igarota
1	Zuzendaritza Nagusia	Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Giza Baliabideen Zuzendaritza-Plangintza eta Kudeaketako Zuzendaritza Prebentzioko / Lan Osasuna / Lanaldi Zatiua-Ez espezifikoko gehiago / 3HE-Mugaegunik gabe